## BASTIDA

3861

**Bastidako herrigune historikorako sarbideen kontrola arautzen duen udal ordenantza.**

2011ko maiatzaren 9ko ALHAOn, 56. zenbakikoan, Bastidako herrigune historikorako sarbideen kontrola arautzen duen udal ordenantza jendaurrean jarri zen.

Jendaurreko aldia iraganda, ez da erreklamaziorik aurkeztu, ezta iradokizunik ere, udal ordenantza honen inguruan.

Horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 9. artikuluari jarraituz, behin betiko onetsi da Bastidako herrigune historikorako sarbideen kontrola arautzen duen udal ordenantza.

Beraz, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluaren arabera, Bastidako herrigune historikorako sarbideen kontrola arautzen duen udal ordenantzaren artikuluak argitaratu dira, lege arau horrek xedatu bezala indarra hartuko dutenak.

Administrazio bidea amaitzen duen erabaki horren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera zenbatuta (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 52. artikulua, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 107.3 artikulua, eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautu duen 29/1998 Legearen 46.1 artikulua).

**Bastidako herrigune historikorako sarbideen kontrola arautzen duen udal ordenantza.**

1. artikulua.- Ordenantzaren xedea. Ordenantza honen xedea da Bastidako herrigune historikoko monumentu multzoaren mugapeko eremuetan zein, ingurumen kalitatea, zerbitzu publikoak emateko bermea eta herritarren segurtasuna direla-eta, ibilgailuak sartzean kontrol neurri zehatzak ezartzea gomendatzen dutenetan ibilgailuen sarrera eta zirkulazioa murriztea, eremuak gehienbat oinezkoek erabil ditzaten berreskuratzeko asmoz, hiribilduan saltoki gehien dituzten eremuetara pertsonak oinez joan ahal izatea bermatuta.

2. artikulua.- Aplikazio eremua. Hona hemen ordenantzak ukitzen dituen kaleak:

- Paz plaza
- Frontín kalea
- Berlandino kalearen eskuineko kale txikiak

Bide publiko horiek oinezkoek erabiliko dituzte nagusiki, eta baimendutako ibilgailuak horietara sartu ahalko dira ordenantza honetan arautzen diren kasuetan eta baldintzekin baino ez. Halaber, debekatuta egongo da Paz plazan ibilgailuak aparkatzea.

3. artikulua.- Seinaleak. Ordenantza honek ukitzen duen eremua seinaleztatu egingo da, horretara sartzeko balizko kale guztien sarbideetan.

4. artikulua.- Ukituriko kaleetan dauden auzokoen ibilgailuetarako, garajeetarako eta enpresetarako sarbidea. Ordenantza honek ukitzen dituen kaleetara sartzeko, udal baimena eta sarbide txartela eduki beharko dira. Txartel horrek horietara sartzeko eskubidea bereizten du, sarbideen kontrolak ukitzen dituen kaleetan dauden auzokoak, garajeen erabiltzaileak edo enpresak diren aldetik titular bakoitzari emandako udal baimenean zehaztu bezala. Sartzeko baimen horrek ez du eskubiderik sortuko Bastidako Paz plazan ibilgailua aparkatzeko.

1.- Auzokoak: Sarbide txartela emango zaie ordenantza honek ukitzen dituen kaleetako baten batean etxebizitza baten jabe diren pertsona fisikoen ibilgailu guztiei. Tratamendu berdina emango zaie sarbideen murrizketak ukitzen dituen kaleetako baten batean etxebizitza baten jabe diren pertsona fisikoei, beste kale batzuetan dagoen enpresa baterako lan egin arren, enpresa horrek ibilgailua esleitu badie lan arloko joan-etorrietarako.

## LABASTIDA

3861

**Ordenanza municipal reguladora del control de accesos al Centro histórico de Labastida.**

Tenido en cuenta que, por medio de anuncio publicado en el BOTHA nº 56, de fecha 9 de mayo de 2011, se sometió a trámite de información pública la ordenanza municipal reguladora del control de accesos al centro histórico de Labastida

Transcurrida la fase de información pública, no se han presentado reclamaciones ni sugerencias frente a la citada ordenanza municipal.

Así las cosas, por mor del artículo 49 de la Ley 7/1985, de Bases de Régimen Local, la ordenanza municipal reguladora del control de accesos al centro histórico de Labastida queda aprobada de manera definitiva.

Por tanto, de conformidad con el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de Bases del Régimen Local, se publica el texto articulado de la ordenanza municipal reguladora del control de accesos al centro histórico de Labastida, que entrará en vigor conforme dispone el citado precepto legal.

Frente a este acuerdo, que agota la vía administrativa, únicamente se podrá interponer recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses contados a partir de la publicación de este anuncio en el BOTHA (artículo 52 Ley 7/1985, de Bases del Régimen Local, artículo 107.3 Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y Procedimiento Administrativo Común, y artículo 46.1 Ley 29/1998, de la Jurisdicción Contencioso Administrativo).

**Ordenanza municipal reguladora del Control de accesos al Centro Histórico de Labastida**

Artículo 1.- Objeto de la Ordenanza Es objeto de esta Ordenanza la restricción al acceso y circulación de vehículos en aquellas de la villa incluidas en la delimitación del Conjunto Monumental del Casco Histórico de Labastida y en las que las especiales exigencias de calidad ambiental, garantía de prestación de los servicios públicos y seguridad ciudadana, hacen aconsejable el establecimiento de determinadas medidas de control en el acceso de vehículos con la finalidad de recuperar los espacios para el uso preferente de los peatones, garantizando el acceso peatonal de público en general a las zonas más comerciales de la Villa.

Artículo 2.- Ambito de Aplicación. Las calles afectadas por esta Ordenanza son:

- Plaza La Paz
- Calle Frontín
- Callejones de la derecha de Berlandino

Las citadas vías públicas serán de uso predominantemente peatonal, pudiendo acceder a las mismas vehículos autorizados exclusivamente en los casos y condiciones reguladas en esta ordenanza, quedando prohibido el estacionamiento de vehículos en la Plaza La Paz.

Artículo 3.- Señalización. La zona afectada por esta Ordenanza estará señalizada en los accesos de todas las posibles calles de entrada a la misma.

Artículo 4.- Acceso de vehículos de residentes, garajes y empresas ubicadas en las calles afectadas. Para tener acceso a las calles afectadas por esta Ordenanza, será necesario contar con autorización municipal y una tarjeta de acceso que individualiza el derecho de acceso a las mismas, en las condiciones determinadas en la autorización municipal concedida a cada titular en su condición de residente, usuario de garaje o empresas ubicadas en las calles afectadas por el control de accesos. Esta autorización de acceso no dará derecho al estacionamiento del vehículo en la Plaza La Paz de Labastida.

1.- Residentes: Se concederá Tarjeta de acceso a todos aquellos vehículos que sean propiedad de personas físicas propietarias de vivienda en alguna de las calles afectadas por esta ordenanza. Recibirán igual tratamiento las personas físicas propietarias de vivienda en alguna de las calles afectadas por la restricción de accesos que, prestando servicios en una empresa ubicada en otras calles, ésta le haya asignado un vehículo para sus desplazamientos profesionales o laborales.

Sarbide txartelaren balio denbora bost urtekoa izango da. Eskabidearekin batera, honako agiri hauen fotokopia aurkeztu beharko da: Eskatzailearen NANa, atzerritarraren identitate-txartela edo pasaportea, eta baimena eskuratu behar duen ibilgailuaren zirkulazioko baimena. Udalak ofizioz egiaztatuko du eskatzailea ordenantza honen aplikazio eremuaren barnean dauden kaleetako baten batean etxebizitza baten jabe den.

Sarbide txartela berriztatzeko ez da dokumentazio berririk erantsi behar, datuak aldatu ezean.

Sarbide txartela emateak berekin dakar onuradunak hori itzultzeko hartzen duen konpromisoa, hori ematea eragin duten zirkunstantziak aldatzen direnean.

2.- Sarbide txartela emango zaie, edozein tituluren bidez, sarbideen murrizketak ukitzen dituen kaleetako baten batean dauden garajeak erabiltzen dituzten ibilgailu guztiei.

Sarbide txartelaren balio denbora bost urtekoa izango da, jabeak erabiltzen badu garajea, eta urtebetekoa, ordea, maizterrak erabiltzen badu. Eskabidearekin batera, honako agiri hauen fotokopia aurkeztu beharko da: Eskatzailearen NANa, atzerritarraren identitate-txartela edo pasaportea, baimena eskuratu behar duen ibilgailuaren zirkulazioko baimena, eta garaje plaza baten titularra dela egiaztatzen duen agiria (jabea bada, OHZren ordainagiri eguneratua, eta, maizterra bada, aldiz, alokairu kontratua).

Sarbide txartela berriztatzeko ez da dokumentazio berririk erantsi behar, datuak aldatu ezean.

Sarbide txartela emateak berekin dakar onuradunak hori itzultzeko hartzen duen konpromisoa, hori ematea eragin duten zirkunstantziak aldatzen direnean.

3.- Sarbideen kontrolak ukitzen dituen kaleetan dauden enpresak. Sarbide txartelaren bidez sartzea baimenduko zaie sarbideen kontrolak ukitzen dituen kaleetan dauden enpresei (loradenda, catering enpresa, mezularitza, etxez etxeko zerbitzuak edo antzeko beste batzuk), beren jarduera establezimendutik kanpo gauzatzeko kale horietatik igaro behar badute.

Sarbide txartelaren balio denbora urtebetekoa izango da. Eskabidearekin batera, honako agiri hauen fotokopia aurkeztu beharko da: baimena eskuratu behar duten ibilgailuen zirkulazioko baimena, eta jarduera hartzen duen lokalaren eskritura publikoa, alokairu kontratua edo jabetza eskubidea egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Sarbide txartela berriztatzeko ez da dokumentazio berririk erantsi behar, datuak aldatu ezean.

Sarbide txartela emateak berekin dakar onuradunak hori itzultzeko hartzen duen konpromisoa, hori ematea eragin duten zirkunstantziak aldatzen direnean.

5. artikulua.- Sarbide bereziak: Kasu berezietan ibilgailuak ordenantza honek ukitzen dituen kaleetara sartu ahal izateko, alkatearen baimena eduki beharko da. Sartzeko baimen horrek ez du eskubiderik sortuko Paz plazan ibilgailua aparkatzeko.

1.- Premiazko zerbitzuak. Sartzeko baimen berezia emango zaie etxez etxeko larrialdietarako arreta medikoa duten osasun zentroen ibilgailuei zerbitzuak emateko ezinbesteko denboran, ez baitaude argi eta garbi identifikatuta ibilgailuaren kanpoaldean.

2.- Zamalanak. Sarbideen kontrolak ukitzen dituen kaleetan dauden merkataritza eta ostalaritza establezimenduen zamalanak lanegunetan egin ahalko dira, 07:00etatik 12:00etara bitartean.

Zirkulazioaren noranzkoak eta zamalanetarako prestaturiko tokiak errespetatu beharko dira.

3.- Ostalaritza establezimenduak. Sarbideen kontrolak ukitzen dituen kaleetan dauden ostalaritza establezimenduen bezeroak horietara sartu ahalko dira, fardelak hartzeko eta uzteko.

Establezimenduak ibilgailuaren matrikula jakinaraziko dio Udalari aldez aurretik.

El Periodo de validez de la tarjeta de acceso será de cinco años, debiendo acompañar a la solicitud fotocopia de los siguientes documentos: DNI, o Tarjeta de Identidad de Extranjero o Pasaporte, del solicitante y permiso de circulación del vehículo para el que se solicite la autorización. El Ayuntamiento comprobará de oficio si el solicitante si es propietario de vivienda en alguna de las calles incluidas dentro del ámbito de aplicación de esta ordenanza.

La renovación de la tarjeta de acceso no requiere adjuntar documentación nueva, salvo si existe variación de datos.

La concesión de la tarjeta de acceso lleva aparejado el compromiso del beneficiario de devolverla cuando varíen las circunstancias que dieron lugar a su concesión.

2.- Se concederá Tarjeta de Acceso a todos aquellos vehículos que, por cualquier título, utilizan garaje ubicado en alguna de las calles afectadas por la restricción de accesos.

El periodo de validez de la tarjeta de acceso será de cinco años cuando el garaje sea utilizado por su propietario y de un año cuando sea utilizada por un arrendatario, debiendo acompañar a la solicitud fotocopia de los siguientes documentos: DNI, o Tarjeta de Identidad de Extranjero o Pasaporte, del solicitante y permiso de circulación del vehículo para el que se solicite la autorización y del documento que acredite ser titular de una plaza de garaje como propietario (recibo actualizado del IBI) o arrendatario (contrato de arrendamiento).

La renovación de la tarjeta de acceso no requiere adjuntar documentación nueva, salvo si existe variación de datos.

La concesión de la tarjeta de acceso lleva aparejado el compromiso del beneficiario de devolverla cuando varíen las circunstancias que dieron lugar a su concesión.

3.- Empresas ubicadas en las calles afectadas por el control de accesos. Se autorizará el acceso mediante tarjeta de acceso a aquellas empresas (floristería, catering, mensajerías, servicios a domicilio u otros análogos) que se localizan dentro de las calles afectadas por el control de accesos y que para la realización de su actividad de transporte fuera de su establecimiento precisa el paso por dichas calles.

El periodo de validez de la tarjeta de acceso será de un año, debiendo acompañar a la solicitud fotocopia de los siguientes documentos: Permiso de circulación de los vehículos para los que se solicite la autorización y escritura pública, contrato de arrendamiento o cualquier otro documento acreditativo del derecho de propiedad del local donde se ubique su actividad.

La renovación de la tarjeta de acceso no requiere adjuntar documentación nueva, salvo si existe variación de datos.

La concesión de la tarjeta de acceso lleva aparejado el compromiso del beneficiario de devolverla cuando varíen las circunstancias que dieron lugar a su concesión.

Artículo 5.- Accesos especiales: Para hacer posible el acceso de vehículos en casos especiales a las calles afectadas por esta Ordenanza, será necesario contar con autorización del Alcalde. Esta autorización de acceso no da derecho al estacionamiento del vehículo en la Plaza La Paz.

1.- Servicios Urgentes. Se concederá autorización especial de acceso a los vehículos de aquellos centros sanitarios que cuenten con asistencia medica de urgencias domiciliarias y que no estén claramente identificados exteriormente, por el tiempo indispensable para la prestación de los servicios.

2.- Carga y Descarga. La carga y descarga en los establecimientos comerciales y hosteleros ubicados en las calles afectadas por el control de accesos podrá realizar la misma los días laborables en horario de 07:00 a 12:00 horas.

Deberán respetarse los sentidos de circulación y los lugares habilitados para carga y descarga.

3.- Establecimientos de hospedaje. Los clientes de los establecimientos de hospedaje ubicados en las calles afectadas por el control de accesos podrán acceder a las mismas para la carga y descarga de sus equipajes.

El establecimiento notificará previamente al Ayuntamiento la matrícula del vehículo.

Ez da baimenduko establezimendu horietara sartzea, zirkunstantziak ezberdinak direnean.

4.- Adinekoentzako sarbidea. Behar bezala justifikatzen diren ohiz kanpoko egoeretan sartzeko baimena eman ahalko zaie, askotariko zirkunstantzia sozioekonomikoak direla-eta, adinekoak zaindu behar dituzten pertsonei.

Halaber, sartzeko eskubidea izango dute hirurogeita hamabost urtetik gorako adinekoek, ukituriko kaleetako baten batean bizi badira, behar bezala justifikatutako arrazoiak direla-eta etxera joateko ibilgailua behar badute, eta aurretik arautu diren kasuetako batean ere ez badaude.

Kasu horietan, ibilgailuaren matrikula eta eskatzailearen datu pertsonalak jakinarazi behar zaizkio Udalari aldez aurretik.

5.- Gertaerak eta ospakizunak. Ordenantza honek arautzen dituen kaleetara sartzea baimenduko da erlijio ospakizunetarako edo ospakizun zibiletarako eta beste gertaera batzuetarako, adibidez, erakusketak, azokak, etxe aldaketak, eta jolas edo kultur gertaerak, baldin eta Alkatetzari sartzeko baimena eskatzen bazaio behar bezalako aurrerapenaz. Hori dela eta, Alkatetzak baimen berezia emango du.

6.- Zerbitzu teknikoak ematea. Ibilgailuak sartzeko baimena emango zaie oinarrizko eta premiazko zerbitzuak (telefonia, gasa, elektrizitatea, eta etxeetako eta establezimenduetako premiazko konponketak, besteak beste) ematen dituzten enpresei, hori eskatzen badute Alkatetzari idatzitako eskabidearen bidez, zerbitzuak direla-eta behar bezala justifikatu ondoren.

7.- Obretarako sarbidea. Eraikinak eraikitzeko, instalatzeko edo birmoldatzeko edozein obra gauzatzeko asmoz, ordenantza honek ukitzen dituen kaleetara sartzeak zamalanen tratamendu berdina izango du, oro har.

Salbuespen gisa, ibilgailuak ukituriko eremura sartzea baimenduko da zamalanetarako ordutegitik kanpo, behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude.

Horretarako, Alkatetzaren baimena beharko da, eta bertan baimenaren zirkunstantziak eta mugak zehaztuko dira. Nolanahi ere, obretarako udal lizentziaren fotokopia erantsi beharko da.

6. artikulua.- Baimena izan beharretik salbuetsitako ibilgailuak. Honako hauek ez dute sartzeko udal baimenik beharko, eta ordenantza honek ukitzen dituen eremuetatik ibili ahalko dira:

1.- Larrialdietarako ibilgailuak. Segurtasun indarren eta kidegoen, suhiltzaileen, babes zibilaren, eta osasun laguntza publikoaren edo pribatuaren ibilgailuak, lanean ari badira.

2.- Auto taxiko zerbitzua. Bastidako Udaleko auto taxiaren udal lizentzia duten ibilgailuak, atseden egunetan izan ezik eta bidaiariak garraiatzeko edo biltzeko lanean ari badira.

3.- Minusbaliatuentzako sarbidea. Mugikortasunari eragiten dion minusbaliotasuna duten eta herri administrazio eskudunak emandako irisgarritasun txartela duten pertsonek joan-etorrietarako erabiltzen dituzten ibilgailuak. Txartel hori ibilgailutik kanpo ikusteko moduan jarri beharko da.

4.- Ibilgailu ofizialak. Herri administrazioen zerbitzuak emateko erabiltzen diren ibilgailuek, baita Posta eta Telegrafoen zerbitzuari, hiri higienerako zerbitzu publikoei eta bestelako zerbitzu publikoei zein hileta enpresei atxikitakoek ere, sartzeko baimena izango dute, baldin eta behar bezala identifikatuta badaude eta sarbide murriztua duten eremuetara sartu beharra behar bezala justifikatu badiote Udalari.

7. artikulua.- Egiaztapen bereizgarriak. Ordenantza hau abiarazteko alderdi teknikoak eta administratiboak alkateari dagozkio.

Ordenantza honen 4. artikuluaren kasuetan dauden ibilgailu guztiek eremu murriztuetara sartzeko baimena izan behar dute.

Ordenantza honen 5. artikuluaren kasuetan dauden ibilgailu guztiek alkatearen baimen berezia behar dute.

No se permitirá el acceso a estos establecimientos en otras circunstancias.

4.- Acceso de personas mayores. Para situaciones excepcionales y debidamente justificadas se podrá conceder autorización de acceso a aquellas personas que deban atender, por diversas circunstancias socioeconómicas, a personas mayores.

También tendrán derecho de acceso las personas mayores de setenta y cinco años que, residiendo en alguna de las calles afectadas y por razones debidamente justificadas precisen acceder a su residencia mediante vehículo y no se encuentren incluidas en ninguno de los supuestos anteriormente regulados.

En estos caso, hay que comunicar previamente al Ayuntamiento, la matrícula del vehículo y datos personales del solicitante.

5.- Eventos y celebraciones. Se permitirá el acceso a las calles reguladas por esta Ordenanza para celebraciones religiosas o civiles y otros eventos como exposiciones, ferias, mudanzas, eventos lúdicos o culturales, siempre que se solicite el acceso con antelación suficiente a la Alcaldía, que emitirá un permiso especial.

6.- Prestación de servicios técnicos. Se concederá autorización para el acceso de vehículos a empresas dedicadas a la prestación de servicios esenciales y urgentes (telefonía, gas, electricidad, reparaciones urgentes en domicilios y establecimientos) cuando así lo demanden por motivos debidamente justificados de necesidad de servicios, mediante solicitud escrita a la Alcaldía.

7.- Acceso a Obras. Con carácter general, el acceso a las calles afectadas por esta ordenanza para la ejecución de cualquier obra de construcción, instalación o remodelación de edificaciones, tendrá el mismo tratamiento que las operaciones de carga y descarga..

Excepcionalmente se permitirá el acceso de vehículos a la zona afectada en horario distinto al de carga y descarga por razones debidamente justificadas.

Para ello será necesaria la correspondiente autorización de la Alcaldía, en la que se concretarán las circunstancias y limitaciones de ésta, debiendo en todo caso aportar copia de la licencia municipal de obras.

Artículo 6.- Vehículos excluidos de la necesidad de autorización. No necesitarán permiso municipal de acceso, pudiendo circular por las zonas afectadas por esta ordenanza:

1.- Vehículos de urgencia. Vehículos pertenecientes a las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad, servicio de extinción de incendios, protección civil, asistencia sanitaria pública o privada, siempre que se encuentren prestando servicio.

2.- Servicio de auto taxi. Vehículos que cuenten con licencia municipal de auto-taxi del Ayuntamiento de Labastida, salvo en los días de descanso y siempre que estén prestando servicio con transporte o para la recogida de pasajeros.

3.- Acceso de personas con discapacidad. Vehículos en los que se desplacen personas con minusvalía que afecten a su movilidad y estén en posesión de la Tarjeta de Accesibilidad expedida por la administración pública competente, que deberá encontrarse en un lugar del vehículo que la haga visible desde el exterior.

4.- Vehículos Oficiales. Los vehículos destinados a la prestación de servicios de las distintas Administraciones Públicas, así como los adscritos al servicio de Correos y Telégrafos, Servicios Públicos de Higiene Urbana y otros servicios públicos así como las empresas funerarias, siempre que se encuentren debidamente identificados, dispondrán de la correspondiente autorización de acceso, una vez que hayan justificado debidamente al Ayuntamiento la necesidad de acceso a las zonas de acceso restringido.

Artículo 7.-. Distintivos acreditativos. Los aspectos técnicos y administrativos para la puesta en marcha de esta ordenanza corresponden al Alcalde.

Todos los vehículos comprendidos en los supuestos del artículo 4 de la presente ordenanza han de estar autorizados para acceder a las zonas restringidas.

Los vehículos comprendidos en los supuestos del artículo 5 de esta ordenanza, necesitan autorización especial del Alcalde.

8. artikulua.- Baimen eskabidea eta berriztapena. Udal bulegoetan bideratuko da, aurkeztu beharreko dokumentazioa aztertu ondoren alkateak ebatziko duen eskabidearen bidez.

Eskabidea ebazteko epea 3 hilabetekoa izango da, eta administrazio isiltasunak eskabidea ukatzea ekarriko du.

Baimena jasotzen bada, baimen hori jakinarazi, eta sarbide txartela emango zaio.

9. artikulua.- Sarbide txartela erabiltzeko arauak. Sarbide txartela titularrak baino ezin izango du erabili. Beraz, ezin izango zaio inori laga haren erabilera.

Sarbide txartela Bastidako Udalarena da.

Sarbide txartelaren titularrak haren erabilera onaz arduratuko dira, eta araudi hau betetzeko konpromisoa hartuko dute.

Etxea aldatzen bada, txartelaren titularrak berehala jakinarazi beharko dio Udalari.

Sarbide txartela lapurtu, ebatsi edo ostuz gero, beste txartel bat eskuratzeko eskabidearekin batera, gertaera horri dagokion salaketaren fotokopia aurkeztu beharko da.

Txartela hondatu edo galtzen bada, txartel berria eskatzeko bezala jardungo da txartelaren kopia eskuratzeko, eta hiru euroko fidantza egin beharko da sarbide txartel berriagatik.

Eremu murriztuetatik ibiltzeko baimena duten ibilgailuek ezin izango dute Paz plazan aparkatu, aurreikusitako kasuetan izan ezik.

10. artikulua.- Txartelak eta baimenak iraungitzea eta baliogabetzea. Emandako baimenak eta txartelak honako kasu hauetan iraungiko dira:

a).- Emateko epea amaitzen denean.

b).- Interesdunak ohiko etxebizitza edo garaje plaza edo aparkalekua ukituriko eremuan izateari uzten dionean.

c).- Sartzeko baldintzak betetzen ez direnean.

d).- Txartela behar ez bezala erabiltzen denean.

Interesdunari entzunaldia emanda, alkateak baimenak baliogabetuko ditu ofizioz, aurreko paragrafoan aipatu diren egoerak gertatu direla egiaztatu ondoren.

11. artikulua. Arau hausteak eta zehapenak. Honako hauek izango dira ordenantza honen arau hausteak:

a).- Agintari eskudunak eskatu arren, sarbide txartela ez erakustea.

b).- Baimen baten titularrak etxe edo ibilgailu aldaketa ez jakinaraztea Udalari.

c).- Baimendutako pertsona ez denak sarbide txartela erabiltzea.

d).- Sarbide txartela manipulatzea edo iruzurrez erabiltzen laguntzea.

Arau hauste horiek 90 euroko isunarekin zehatuko dira, zehapen prozedura bideratu ondoren, motordun ibilgailuen zirkulazioari buruzko administrazio arloko arau haustea egiteagatiko zehapenari kalterik egin gabe.

Diru zehapenaren zehapen osagarria sartzeko baimena baliogabetzea izango da.

Ordenantza honek ukitzen duen edozein kaletara identifikazio txartelik edo sartzeko baimenik gabe sartzea zehatu egingo da.

Paz plazan ibilgailu bat aparkatzen bada baimendutako kasuetatik eta orduetatik kanpo, hori zehatu, eta sarbide txartela erabiltzeko eskubidea galduko da astebetez, lehenengo arau haustea bada. Sarbide txartela erabiltzeko eskubidea galduko da hilabetez, bigarren arau haustea bada, eta etengabe, berriz, hirugarren arau haustea bada.

Xedapen osagarri bakarra

Alkateak ahalmena dauka aurreko ataletan aipatu edo aurreikusi diren kasuen antzekoetan sarbide txartelak emateko.

Kasu horietan, horrela emandako baimenen eta horiek eragin dituzten zirkunstantzien berri emango zaio Udalaren osoko bilkurari.

Azken xedapen bakarra

Ordenantza honek indarra hartuko du Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean ezarritakoaren arabera.

Bastida, 2011ko ekainaren 17a.– Alkatea, IGNACIO GIL ORIVE.

Artículo 8.- Solicitud de autorización y renovación. Se tramitará en las oficinas municipales mediante solicitud que será resuelta por el Alcalde, una vez examinada la documentación que debe aportarse.

El plazo de resolución de la solicitud es de 3 meses, siendo el silencio administrativo de carácter negativo.

En caso de ser autorizado, se notificará esta autorización y se le proveerá de la Tarjeta de acceso.

Artículo 9.- Normas de utilización de la Tarjeta de Acceso. Sólo podrá utilizarse la tarjeta de acceso por su titular, no pudiendo cederse su uso a ninguna otra persona.

La tarjeta de acceso es propiedad del Ayuntamiento de Labastida.

Los titulares de la tarjeta de acceso son responsables del buen uso de la misma, comprometiéndose al cumplimiento de esta normativa.

En caso de cambio de domicilio, el titular de la tarjeta está obligada a comunicarlo inmediatamente al Ayuntamiento.

En caso de robo, hurto o sustracción de la tarjeta de acceso, junto a la solicitud para obtener otra tarjeta, habrá de presentarse una fotocopia de la denuncia correspondiente por este hecho.

En los supuestos de deterioro o pérdida de la tarjeta, para la obtención de una copia de la tarjeta se procederá como si de una nueva se tratase y depositar tres euros de fianza por la nueva tarjeta de acceso.

Los vehículos autorizados para circular por las zonas restringidas no podrá estacionar en la Plaza La Paz, salvo en los supuestos previstos.

Artículo 10.-Extinción y Revocación de tarjetas y autorizaciones. Las autorizaciones y tarjetas concedidas se extinguirán en los siguientes casos:

a).- Cuando finalice el plazo para el que fueron concedidas

b).- Cuando el interesado deje de tener su residencia habitual en la zona afectada o deje de tener plaza de garaje o cochera.

c).- Por incumplimiento de las condiciones de acceso.

d).- Por el uso indebido de la tarjeta.

La revocación de las autorizaciones, con audiencia de la persona interesada, se efectuará de oficio por el Alcalde tras la acreditación de las situaciones recogidas en el párrafo anterior.

Artículo 11.- Infracciones y sanciones. Se consideran infracciones a esta ordenanza:

a).- No presentar la tarjeta de acceso, a requerimiento de la autoridad competente.

b).- No comunicar el titular de una autorización al Ayuntamiento el cambio de domicilio o de vehículo.

c).- Utilizar una tarjeta de acceso por una persona distinta a la autorizada.

d).- Manipular la Tarjeta de Acceso o colaborar en su utilización fraudulenta.

Estas infracciones serán sancionadas con multa de 90 euros, previo tramitación de procedimiento sancionador, y, sin perjuicio de la sanción por infracción administrativa en materia de circulación de vehículos a motor.

La sanción pecunaria llevará como sanción accesoria la revocación de la autorización de acceso.

El acceso con un vehículo a cualquier calle afectada por esta ordenanza, careciendo de la correspondiente Tarjeta de identificación o autorización de acceso, será denunciado.

El hecho de estacionar un vehículo en la Plaza de La Paz, fuera de los casos y horarios previstos en ella, será denunciado y perderá la Tarjeta de Acceso durante una semana la primera infracción. Por un mes, la segunda e indefinidamente por la tercera infracción.

Disposición Adicional Unica

El Alcalde queda facultado para la concesión de tarjetas de acceso en casos similares no contemplados o previstos en los apartados anteriores.

En estos supuestos se dará cuenta al Pleno municipal de las autorizaciones así concedidas y de las circunstancias que las han motivado.

Disposición Final Unica

La presente ordenanza entrará en vigor de conformidad con lo establecido en la Ley 7/1985, de 2 abril, de Bases del Régimen Local.

Labastida, 17 de junio de 2011.– El alcalde, IGNACIO GIL ORIVE.